

A hand-drawn illustration in a sketchy, textured style. In the foreground, a person with short brown hair, seen from behind, wears a white tunic with a red V-neck collar and a green sash. They are looking towards a city that has been destroyed. In the background, several buildings are shown with large, bright orange and yellow flames rising from them. The sky is filled with grey, smoky or ashy clouds. The overall scene conveys a sense of devastation and tragedy.

DBH
1-2

Augustin
Zubikarria
XIV. ipuin saillyra

2025-26 ikasturtea
ONDARROA

Idaztea ariketa ausarta da, eta are ausartagoa norberaren barrukoa partekatzea, noiz eta ordu bi bakarrik izanda halako ariketa bat egiteko. Batzuk pozik geratuko ziren egindako ariketarekin beste batzuk, oster, ez hainbeste; baina gauza bat bistan da: gure gazteek erronkari egin diote aurre irudimenez eta gogotsu.

Bilduma hau ez da ohiko liburu bat. Orrialde hauek leiho bat zabalik uztea bezala da, gazteen ahotsarena: begiratzeko modu bat, mundua ulertzeko saiakera zintzo bat. Istorio bakoitzak badu bere tonua, bere erritmoa, eta, bakoitzean, aldi berean, galderak, kezak eta ilusioak planteatzen ari zaizkigu. Gazteen pultsua gertutik sentitzeko aukera bat da hau. Zer pentsatzen dute? Zerk harritzen ditu? Zerk mugitzen ditu barrutik? Hemen aurkituko dituzu erantzun batzuk... eta, ziurrenik, galdera berriak ere bai. Horixe baita literaturaren indarra: irakurlea mugiaraztea, beste begirada batzuk ezagutzeko aukera eskaintzea, eta gure ingurukoak hobeto ulertzen laguntzea.

Hartu tarte bat, irakurri lasai; seguru gaude, istorio hauetan, espero zenuena baino gehiago aurkituko duzula.

DBH
1-2

AURKIBIDEA

4 BIZITZA ZEIN KRUELA DENI!
EKI ROMEO ETXABURU • HAITZ ETXABURU ITUARTE

7 DOMINAK
JULEN MARTINEZ DE AZAGRA MARTINEZ DE LUKO • AIMAR BADIOLA ALVAREZ

11 ERREALITATE GORDINA
ANE ITUARTE AGIRRE • IZARO SOLABARRIETA BILBAO

14 ERREALITATE IKUSEZINA
MAIALEN BEDIAAUNETA IBAIBARRIAGA • AIMAR ARISTI UGALDE

17 MENDEKUAREN BILA
MAIALEN ZUBELDIA CASAIS • ENARA PEREZ BILBAO

*Augustin
Zubikarai
XIV. ipuin rallya*
2025-2026 ikasturtea



ondarru
bixi-bixi

Epaimahaikideak:
Leire Bilbao Barruetabeña
Ana Urkiza Ibaibarriaga

Antolatzailea:
ONDARROAKO UDALA

Babeslea:
BIZKAIKO FORU ALDUNDIA



Bizkaia
foru aldundia

Bizitza zein krudela den!

Bazen behin, Hassan izeneko gaztetxo bat. Palestinan bizi zen bere guraso eta anaia nagusiarekin. Bizi zen lekua umila eta pobrea zen, horregatik, elkarri asko laguntzen zioten.

Egun lasai batean, familiak hiriko merkatura joatea erabaki zuen. Heldu zirenean, beti bezala, jende asko zegoen merkatuan. Asko erosi ondoren, etxera bultatzea erabaki zuten. Etxerako bidean, disparo bartzuk entzun zituzten, baina pentsatu zuten, beti bezala, ehiztariak izango zirela.

Hurrengo egunean, Achrafek, Hassanen aitak, bere lagun mina-
rekin merkatura janaria saltzera joatera erabaki zuen. Tartetxo bat egon ondoren, bat-batean, Israeleko armada merkatuko atean agertu zen. Edonori disparatzen hasi zitzaizkion, tamalez, baletako batek Achraf hiltzea lortu zuen. Oso gogorra izan zen bere lagunarentzat, baina ezin izan zen han geratu, korrika batean herrira bueltatu behar izan baitzuen. Herrira iristean, Hassanen etxera joatea erabaki zuen, atea jo zuen eta Hassanen ama irten zen. Urduri, Achraf non zegoen galdetu zion, tentsioa erabatekoa zen, eta, horrexegatik, hain zuzen ere, nahiago izan zuen isilik geratu. Amak negar batean atea itxi zuen.





Amak umeei kontatu ondoren, herritik joan behar zirela esan zien. Amak bazekien herrira etorriko zirela, horregatik, bere burua arriskuan jarri zuen, bere semeak bizirik mantentzeko, semeentzat oso gogorra izan zen ama herrian bakarrik uztea, baina hil ala biziko momentu batean zeuden. Bi semeek, oinez, 60 km-ra zegoen herri txiki eta seguru batera joatea lortu zuten, nahiz eta bidean oztopo asko pasatu behar izan zituzten.

Iristean, zer gertatu zitzaien kontatu zioten herritarrei. Familietako batek zer gertatu zitzaien entzun ondoren, beraien etxera bizitzera joatea proposatu zien, bi anaiak baiezkoa eman zioten. Familiak egunero ikusten zituen albisteak, gerran gertatzen zen guztiarekin konturatzeko. Urte batzuk pasatu ondoren, albisteetan gerra bukatu zela ikusi zuten, bi anaiak oso pozik jarri ziren eta herriari eskerrak eman zizkioten. Hassan eta bere anaiak oinez joatea pentsatu zuten, baina herritar batek, berak eramango zituela esan zien. Hassan bat-batean gogoratu zen amak herritik irten aurretik helbide bat eman ziela. Horregatik, helbide horretara joatea erabaki zuten.

Helbideak etxe zahar batera eramaten zituen, semeak sartu eta bere ama aurkitu zuten, ama desidratatuta zegoen eta ahal zuten bizkorren medikuarenera eraman zuten. Azkenean, dena ondo irten zen eta poz-pezik bizi izan ziren, etxe zahar horretan.

Dominak

Bazen behin Ane izeneko neskato bat. Hamalau urte zituen eta Argentinako herri txiki batean bizi zen. Bere gurasoak Maria eta Martin ziren; bere anaia Lucas deitzen zen eta bere amona, Petra. Amona euskalduna zen, baina Argentinara joan behar izan zuen Gerra Zibilaren ondorioz. Ez ziren oso aberatsak; aitak lantegi batean lan egiten zuen eta ez zuen diru askorik irabazten. Anek, bere aldetik, amets bat zuen: munduko tenis jokalaririk onena bihurtzea. Eguenero tenisean aritzen zen bere aitaren laguntzarekin. Baina egun batean, bere bizi-zako berririk txarrena jaso zuen.

1982ko apirilaren 30a zen eta Ane, egunero bezala, tenisa praktikatzen ari zen. Bat-batean, bere ama korrikan agertu zitzaion. Negarez eta urduri zegoen. Anek, amaren hitzak entzun ondoren, ezin izan zion negarrari eutsi: bere aita lantegian hil zen. Hileta egunean, aitaren lagun handi batek Ane ikusi eta segituan hurbildu zen berarengana. Lagun hark Jon zuen izena. Ane erabat beldurtuta zegoen. Hala eta guztiz ere, Jonen proposamena entzun zuen. Lagunak Aneri Argenti-



nako Tenis Txapelketa Nagusian jokatzeko aukera eskaini zion. Baina Anek arazo handi bat zuen: bere familia bakarrik utzi beharko zuen.

Neskatoak egun batzuk buruari bueltak eman zizkion. Azkenean, amak baimena eman zion. Orduan, dena prestatu eta Joni deitu zion. Biok batera joan ziren hegazkinean.

Heldu zirenean, bi egun baino ez zituzten entrenatzeko lehengo partida baino lehen. Anek lehendabiziko partidak erraz irabazi zituen eta azkenean finalera heldu zen. Partida luze bat jokatu ondoren irabazi egin zuen. Irabazitako dirua amari eman zion. Egun batzuk eta gero, Jonek Aneri Olinpiar Jokoetan parte hartzeko gonbidapena luzatu zion.

Anek ezin zuen sinetsi eta negar egin zuen. Bat-batean, Amak dei bat egin zion. Amak esan zion bere anaia oso gaixorik zegoela eta bere laguntza behar zuela. Ane amarengana joaten bazen Olinpiar Jokoak galduko zituen. Anek erabaki bat hartu behar izan zuen. Tentsioa erabatekoa zen, eta, horrexegatik, hain zuzen ere, nahiago izan zuen isilik geratu. Ondoren Anek deia amaitu zuen.

Aste batzuetan zehar pentsatu zuen. Azkenean, amarekin gelditzea erabaki zuen. Ane oso triste zegoen. Egunak amarekin pasatzen





PUMA

ANE	6/4 1/10
DANIELA	1/6/3/0

zituen arren, egunero tenisa praktikatzen zuen. Hilabete batzuk eta gero, anaia osatu egin zen. Egun batean, Ane entrenatzen zegoen birtartean, ikuskatzaile garrantzitsu batek ikusi zuen. Harrituta gelditu zen Ane oso ona zelako. Gero, ikuskatzailea hurbildu eta proposamen bat egin zion: hurrengo teniseko Munduko Txapelketan parte hartzea. Oraingo honetan, Anek baietz esan zuen, baina oraingoan bere familia berarekin etorriko zen. Ane oso urduri zegoen. Gainera, bere familiak baietz esan zion.

Ane eta bere familia Australiara heldu ziren. Bertan zen txapelketa. Aste bat egon zen praktikatzen herrialde horretan. Lehen partidak irabazi zituen justu-justu. Azkenean, finalera heldu zen. Bere familia guztia bertan zegoen. Ane partida galtzen hasi zen. Hala ere, puntuak irabazten joan zen, eta azkenean... Partida irabazi zuen! Negarrez hasi zen eta bere familiarengana joan zen besarkada bat ematera. Egun guztian zehar ospatu zuen familiarekin. Bere bizitzako momenturik onena izan zen!

Urte asko igaro ondoren, hainbat domina eta sari irabazi zituen. Azkenean, bere ametsa bete zuen. Hiru seme-alaba ere izan zituen. Egun batean, Petra hurbildu eta Aneri esan zion:

– Ane zuk domina asko irabazi dituzu bizitzan zehar. Baina nik ere nire urrezko domina irabazi dut: birramona bihurtu nauzu!–



Errealitate gordina

Antxon txikia zela arreba galdu zuen seme bat zen. Bere gurasoek alaba galdu zutenetik, semea asko maitatu eta babesten zuten. Baina Antxonek bere arrebaren heriotzaren erruduntzat jotzen zuen bere burua. Berak ez zuen lan egiten eta alkoholaren munduan sartuta zegoen.

Gurasoek egunero hamar orduz lan egiten zuten, nahiz eta nagusiak izan, dirua behar zutelako, izan ere, euren semeak diru guztia alkoholetan gastatzen zuen. Gurasoek erabaki zuten etxean gertatzen zena inori ez kontatzea, beldur zirelako herrian zehar zabaltzea eta euren semea pertsona maltzur bat bezala ezagutzea.

Egun batean, amak lehenago bukatu zuen lana eta etxera iritsi zenean, bere semea erabat mozkortuta eta haserretuta aurkitu zuen. Bat-batean, Antxon, amari garrasika hasi zitzaion, irainka, eta ama beldurrez gainezka zegoen. Tentsioa erabatekoa zen, eta, horrexegatik, hain zuzen ere, nahiago izan zuen isilik geratu. Eta etxetik atera zen.





Hurrengo egunean, egoera erabat lasaitu zen, halere, amak oraindik buruan zeukan aurreko eguneko gertaera desatsegina eta berriz gerta ez zedin, konponbide baten bila hasi zen. Antxonen buruan gertatzen zena berak bakarrik zekien eta berak bakarrik ulertzen zuen, orduan, aukerarik onena psikologo batengana joatea zen. Psikologoak amari esan zion semearekin oso lasai eta pazientziaz hartu behar zuela, oso momentu txarra pasatzen ari zelako. Eta semeari, ordea, esan zion, nahiz eta zaila izan, bere arrebaren heriotza burutik kentzen saiatu behar zela, bere bizitzak aurrera jarraitzeko.

Psikologoak esandakoa hausnartuz, Antxonek erabaki zuen bere arreba oroitarazten zion oroigarri bat beti berarekin eramatea, horrela, momentu zailtan berarekin zegoela konturatuko zen eta lasaitzen lagunduko zion. Momentu horretatik aurrera, Antxon eta bere familiaren egoera erabat aldatu zen eta, nahiz eta aurreko guztiaz damutu, hutsetik hastea erabaki zuten.



Errealitate ikusezina

Yal-il esnatu zen, lurrean zegoen etzanda, burua alde batera mugitu, eta egun batean herria zena, lur apurtu bat bezala ikusi zuen. Beste aldera begiratzean, etxeoak ikusi zituen odolez beteta.

Aitak esan zion:

– Gaur ere gure herria defendatzera noa, zure seme-alabak hemen hezi eta bizi daitezen.

Yal-ilek ezin izan zion negarrari eutsi, bere aita behin joandakoan, ez zekielako berriro ikusi ahalko zuen. Gaztea, besterik gabe, eguneroko bideari jarraituz ikastolara joan zen, nahiz eta jada ez zuen sentitzen lehen ikastolan sentitzen zuena. Ingurua hutsik baitzegoen jasandako erasoen ondorioz, oroitzapenez beteta zegoen herri koloretsua, tristuraz eta hondamenez gainezka zegoen, ikastola ere ez zegoen egoera hobereanean, ikaskideak eta ikasteko leku aproposak falta baitziren. Beldurrez bizi ziren, edozein momentutan ikastola ere suntsi zezaketelako.







Yal-ilek ikastolatik irteterakoan jende ugari ikusi zuen armekin. Baina ez zion garrantzirik eman, ohituta zegoen eta. Bidea segitu zuen, eta orduan konturatu zen gizon horiek berari jarraitzen ari zirela.

Aurrerago, horietako batek gazteari besotik heldu zion, hori dela eta, Yal-il estutu egin zen, eta ihes egiten saiatu arren, ez zuen lortu. Aurpegian zapi bat jarri zioten, eta bat-batean, lokartu egin zen.

Esnatu zenean, gela ilun batean zegoen, beldurrez beteta eta aurretik zeuden gaizkileak zituen aurrean. Oraingoan desberdin zeuden jantzita, eta ohartu zen bertako batek Israelgo Armadako ikurra zuela. Pertsona hau hurbildu zitzaion, eta hainbat galdera egin zion. Tentsioa erabatekoa zen, eta, horrexegatik, hain zuzen ere, nahiago izan zuen isilik geratu. Yal-ilek bazekien isiltasun hura ez zela onuragarria, baina ez zegoen beste aukerarik, beraz, bere aitak erakutsi zion bezala, bere herria defendatu behar zuela pentsatu zuen eta erabaki hura hartu zuen.

Yal-il betiko isildu zen.

Mendekuarien bila

Bazen behin, Mikel izeneko mutil bat. Agurainen bizi zen, 16 urte zituen, bere lagunekin oso ondo eramaten zen eta hainbat irteera egiten zituzten. Alai zen, baina erabat arraroa, horregatik, bere kuadrilako Alai nek bullynga egiten zion.

Egun batean, Mikel ikastolara joateko esnatu zen, eta leihotik begiratu zuenean, ikusi zuen auzo guztia ertzainez betea zegoela. Mikelek bere amari deitu zion esanez auzo guztia ertzainez betea zegoela, eta amak honako hau erantzun zion:

–Lasai, autoan nator, ertzainak deitu dit esanez zure kuadrilako Alain hil dutela.

–Ba al dakite nor izan den?–galdetu zuen Mikelek.

–Ez, baina galdetegi bat egin behar dizute; izan ere, Alai nek bullynga egiten zizun eta bere kuadrilakoa zinen.–erantzun zion amak.

–Baina ni ez naiz izan! –erantzun zuen oso urduri Mikelek.

–Utzi bakean! –oihukatu zuen segituan.

Amak deia moztu eta pentsatu zuen Mikelek hartutako jarrerak zerikusia izan zuela gertatutakoarekin. Ama etxera iritsi zenean, Mikel



autoan hartu eta ertzainetxera eraman zuen. Mikelek ikusi zuen lagun guztiei egin zietela galdetegia, horregatik, lasaitu egin zen.

Mikelen txanda iritsi zen, eta galdera batzuk egiten hasi ziren:

–Non egon zinen gau hartan?

–Noiz ikusi zenuen azkenengoz Alain?

–Zerbait gertatzen zen zuen artean?–galdetu zioten ertzainek.

–... –isilik geratu zen Mikel.

–Erantzun! Zerbait al daukazu ezkutatzeko? –esan zioten ertzainek.


Tentsioa erabatekoa zen, eta, horregatik, hain zuzen ere, nahiago izan zuen isilik geratu. Ertzainek jarrera hori kontuan hartuta, susmagarritzat hartu zuten, baina etxera joaten utzi zioten adin txikikoa baitzen, baina ertzainek ikertzen jarraitu zuten.

Aste batzuk geroago, jakin zuten, gau hartan, Mikelek alkohola kontsumitu zuela; beraz, Mikelen kuadrilako guztiei proba batzuk egin zizkieten. Soilik Mikelek eta beste 2 lagunek eman zuten positibo, beraz, berriro eraman zuten galdera batzuk egitera:

–Non egon zinen gau hartan eta zer egin zenuen? –galdetu zion ertzainak.

–B... Ba... gau hartan nire amak lana zuenez, Alaineekin eta beste lagun batzuekin trago batzuk hartzera joan ginen, baina kontrola galdu genuen. Ni goizaldeko hiruretan bueltatu nintzen etxera, baina besteak kalean geratu ziren, Alain ni zirikatzen hasi zen eta.

Ertzaintza



–Gaurkoz nahikoa da, eskerrik asko. –esan zioten ertzainek.

Hurrengo egunean, Mikel atxilotu egin zuten, Alainen gorputzean Mikelen DNA aurkitu zutelako. Mikelek aitortu egin zuen bera izan zela. Mendekuaren bila zebilen.

Urte batzuk geroago, hau da, 2025eko irailaren 24an Mikelen gorpua aurkitu zuten kartzelan; hilda zegoen. Autopsia egin ondoren egiaztatu zuten hilketa bat izan zela, eta gorpuan aurkitutako DNA Alai-nena zela. Iñok ez zuen ulertzen zer gertatu zen eta denak izututa gerratu ziren.

Arraroa, ezta?

